



2001EKO APIRILAREN 17KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko apirilaren hamazazpian, iluntzeko zazpiteran, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkate Jaunaren lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Irantzu Amundarain Irizar eta Jon Agirre Garmendia.

Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Julio Ibañez Urteaga, Urko Irastortza Aldanondo, Jose Antonio Dopazo Martin eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- EUSKO LEGEBILTZARRERA HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO
ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren maiatzaren 13an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 43 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

Eta besterik gabe, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

